



LABURPEN EXEKUTIBOA

Osasun Erreformaren erradiografia:

BAZTERKERIAREN UNIBERTSALTASUNA

REDER 16/2012 Errege Lege Dekretua Salatzeno eta horri Aurre Egiteko Sareak 1.500 pertsonaren baino gehiagoren kasuak bildu ditu 2014ko urtariletik 2015eko uztaiera bitartean. Pertsona horiei urratu egin zaie osasunerako duten giza eskubidea, egoera irregularreko immigranteak direnez, osasun-sistemak baztertu dituelako. Espainiako lurraldeko sareko elkarteek honako datu hauek eman dituzte: 32 minbizi-kasu, 38 gaitz kardiobaskular, 62 diabetes-kasu, muskuluen endekapenezko eritasunaren 31 kasu, endekapenezko bestelako eritasunen 8 kasu, jarraipen egokia eta osasun-tratamendua jaso ez zuten hilgarri izan daitezkeen 28 kasutik gora, eta osasun-arazo mental larria duten 27 pertsona.

TITIKO UMEA: OSASUN-TXARTELA UKATU ZAIO ETA PEDIATRAREN KONTSULTA FAKTURATU ZAIO

Bederatzi hilabeteko umea da KCM, Espainian jaioa. Aita eta ama nigeriarrek dira, eta indarrean dute egonaldiaren baimena. Familia-liburua dauka umeak. Espainian jaio izanaren egiaztatzea badauka, baina ez du osasun-txartela, pasaporte aurkeztea eskatzen zaiolako. Familiak, baina, ez du baliabide ekonomikorik pasaporte izapidetzeko. Pediatra-kontsulta bategatik, faktura bat jaso du. Alegazioak aurkeztu dira, eta ebazteko zain daude, araudi autonomiko berria onartu baita (Valentziako Erkidegoa).

Egonaldia erregularizatuta duten immigranteek ere zeharka eragin die 16/2012 Errege Lege Dekretua (ELD) ezartzeak; hala, immigranteak biktimak dira, administrazioak era beldurgarrian jokatu duelako eta horrek disuasio-eragina izan duelako (esaterako, ospitale eta osasun-zentroetako kartelak; araua ezartzeko mugei buruzko informazio egokirik ez), edo administrazio publikoek ez dutelako informazio-kanpaina egokirik.

REDEReko erakunde batzuek hiru urte eman dituzte informazioa biltzen, eta zenbakiak eta datuak zabaltzen, jakiteko bazterkeria sanitarioak pertsonen bizimoduari zelan eragiten dion. Estatu osoko sarearen bidez, ahaleginak batu dira behin betiko jasota gera dadin 2012ko osasun-erreformak sortu dituen egoerak, arreta medikoa ez jasotzeari eta babesgabeziari lotutakoak. Horiek ez dira aparteko kasuak, ez dira sistemak egiten dituen akats puntualetatik eratorriak.

Bazterketa orokorraren benetako sistema da honako hau; oso urrun dago unibertsa izatetik, eta 1986az geroztik Espainiako Osasun Sistema finkatzen duten printzipio gidarieratik.

Erreformak duen eragina neurtu daiteke, ondorio hauetatik abiatuta:

ESKUBIDE BAT UKATZEA DA DESINFORMAZIOA.

Egoera irregularreko immigranteek osasun-txartela ukatzen dien araua indarrean sartu eta hiru urtera, pertsona askok oraindik ere jotzen dute REDEReko

erakundeetara **informazio bila**, sare publikoko osasun-arretaren bat jasotzeko duten eskubideaz (horri lotuta daude jasotako kasuen **%12**). Horri **kasu guztien %22** gehitu behar zaizkio: ez dute osasun-txartela eskatu, ez zekitelako horretarako eskubidea zutenik. Azkenik, **kasu guztien %12**: osasun-zentroan ukatu diete osasun-txartela, **administrazioko langileek okerreko informazioa dutelako txartela eskatzeko izapideez eta baldintzez.**

BABESEKO SALBUESPENAK EZ DIRA SISTEMATIKOKI BETETZEN.

ELDK osasun-arreta jasotzeko gutxieneko babesa ezartzen du honako kasu hauetan: haurdunaldian, erditzean eta erditu ostean, adingabeak direnean eta larrialdietan. Hala ere, behin eta berriro urratzen da babes hori salbuespeneko kasu horietan. REDERek informazio hau jaso du: **109 adingaberi** osasun-arreta ukatu zaie; **232 gertaera** izan dira **larrialdietan** (138 andre eta 94 gizon), besteak beste, arreta ukatutako kasuak eta arreta emategatik fakturatu diren kasuak; eta **78 haurduni** era batera edo bestera urratu zaie euren eskubidea, haurdun egoteagatik zegoen osasun-txartela izapidetu nahi ez izateagatik, edota erditu osteko zailtasunak ez tratatzeagatik, 16/2012 Errege Dekretu Legeak ezartzen dituen nahitaezko arretaren barruan ez zeudela irizita.

Era berezian aipatu behar da hainbat emakumeri haurdunaldiaren borondatezko etendura ukatu zaiela, nahiz eta gaur egun legeak hartzen dituen mugen barruan egon; horrek ondorio arriskutsua dakar, abortuak egin diezazkieketelako osasun-baldintza nahikorik izan gabe, eta, horrenbestez, beren osasunaren eta biziaren kontrako erasoak da.

AURREKO AHAIDEAK: GALDUTA DAUDE ZUZENBIDE-ETA LEGE-LABIRINTO BATEAN.

Immigrante guztien artean, oso gutxi dira familia-berrelkartzearen ondorioz erregularizatuta daudenak, batez ere adinekoak diren aurreko ahaideak. Horiek linbo juridiko-administratiboan daude: ez dute jasotzen osasun-arreta publikoa, eta euren egoerak guztiz mingarriak dira. **Horrelako baldintzetan dauden 25 pertsonaren egoera** jaso du REDERek; besteak beste, honelako gaixotasunak dituzte: kardiopatiak, hipertentsioa, hilgarri izan daitekeen arnas-gaixotasun kronikoa, artritis eta bestelako erreumatismoak, edo jatorriko herrialdean egindako ebakuntza kirurgikoen jarraipena behar dutenak. Ez dute arretarik jaso.

ADABAKIAK DITUEN LEGEDI HORI EZ DA ERAGINKORRA.


Araua indarrean jarri zenetik, autonomia gehienetako gobernuek hainbat formula jarri zuten martxan salbuespenak zabaltzeko eta osasun-sistema publikoaren bidez osasun-arretarako sarbidea erregularizatzeak, 16/2012 Errege Lege Dekretuak baztertzen zituen kolektibo bati begira. Horren ondorioz, "pobreentzako" osasun-azpisistemak sortu dira. Lurralde-berdintasunaren printzipioa urratzen du egoera horrek. Era berean, osasun-azpisistema horiek erakutsi dute ez direla nahikoak markatutako helburuak betetzeko. Lagina hartu zen epean, kasuen **%73** gertatu dira osasun-erreformak baztertzen zituen lagunak babesteko osasun-programa edo araudi autonomikoa ad hoc sortu ziren autonomia erkidegoetan.

ASILOA ESKATZEN DUTENEN ETA SALEROSKETEN


BIKTIMEN HAUSKORTASUN BEREZIA. ELDko salbuespenak zabaldu zituen 1192/2012 Errege Dekretuak, asiloa eta babesa eskatzen zituzten lagunak eta salerosketen biktimak barne hartzeko, gogoeta-epea delakoaren barruan. Argi eta garbi, aurreikuspenak ez dira nahikoak: Nazioarteko babeserako eskabideetan, arreta jasotzeko eskubidea guztiz mugatuta dago; izan ere, Espainian egoteko

baimena jaso duten pertsonentzat baizik ez da, eta, horrenbestez, nazioarteko babesa duen pertsonaren estatusa ezagutzeko itxaroten daudenek ez dute eskubide hori. Bestalde, salerosketen biktimek osasun-arreta jasotzeko eskubidea dute, baldin eta halako biktimak direla identifikatu badute, edo agintarien nolabaiteko babesa badute, baina "berrezarpen eta gogoeta-epean" bakarrik –argi dago epe hori ez dela nahikoa–.

JATORRIAREN ARABERA



ADMINISTRAZIO-EGOERAREN ARABERA



Osasun Sistema Nazionalean dituen ondorioak

2012ko osasun-erreformarekin, oso politika diskriminatzailea gorpuztu zen, **anker jotzen duena biztanle-sektore ahulenean**, egoera irregularreko immigranteekin batez ere (REDERek jasotako kasuen %68), baina baita baliabide gutxi duten Europar Batasuneko hiritarrek ere (jasotako %14).

Atzerakada nabarmena da giza eskubideei dagozkien betebeharrak bete daitezela. Horretaz gain, osasun-ereduaren eraginkortasunari ere eragiten dio kolektibo bat osasun-arretatik kanpo uzteak:

► **Kudeaketa sanitarioak okerrera egiten du**, langile sanitarioen eta administrazioen artean sortzen den nahaste handia dela-eta, araudia zelan ezarri informaziorik ez dagoelako. Horri gehitu behar zaio **asimetria argia** dagoela autonomia-erkidegoen artean araudia ezartzeko orduan; hori dela eta, herritarrek kontraesanek jositako erantzunak jasotzen dituzte, batetik, eta **deskoordinazio handia dago arreta-mailen artean**, bestetik.

► **Arreta medikoak okerrera egiteaz gain, gaixotasun kronikoak edota larriak egoki jarraitzerik ez dago; osasun-prebentzioko programek eraginkortasuna galtzen dute**, eta, ondorioz, arriskua dago pazienteen, eta, oro har, herritarren artean.

► **Sarbiderik gabe Sexuko eta Ugaltzeko Osasun Zerbitzu Publikora:** ELD indarrean dagoenetik, egoera irregularreko emakume immigranteek ez dute sarbiderik osasun-zerbitzuetako sare nazionaleko kontrazepzio-zerbitzuetara, ezta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurara (HBE) ere.

NON JAZO DEN GERTAERA	KASUAK
Osasun Institutu Nazionala edo autonomia-erkidegoko administrazioa, osasun-txartela jaulkitzeko ardura duena	55
Espezialitate-zentroa	19
Osasun-zentroa – Administrazioa	543
Osasun-zentroa – Medikuntza Orokorra	94
Osasun-zentroak – Beste batzuk	14
Ospitalea – Sarrera	35
Ospitalea – Larrialdiak	201
Ospitalea – Beste batzuk	33
Bestelakoak	573
GUZTIZKO	1.567

Osasunerako sarbide unibertsala berrezartzea eskatzen du REDERek


ELD Salatzeko eta horri Aurre Egiteko Sareko (REDER) 300 erakundek eta pertsonak bat egin nahi dute **16/2012 Errege Dekretu Legea eta ondoriozko 1192/2013 Errege Dekretua aldatzeko behar gorria** dagoela aldarrikatzen dutenekin; errege-dekretu horiek, batetik, argi zehazten dituzte Osasun Sistema Nazionalak aseguratzen eta onuradun egiten dituen pertsonak, eta, bestetik, bazterrean uzten dituzte egoera irregularreko immigranteak.

Ildo horretatik, **REDER osatzen duten erakundeek arbuia egiten dute osasun publikorako sarbide-sistema paralelo bat eta** indarrean dagoen **osasun-txartel indibidualetik bereizia sortzea.**


REDERek gogorarazi nahi du autonomia-gobernuek osasun-eskubidearen nazioarteko betebeharrak bete behar dituztela, eta euren eskumen-mugetaraino heltzerik dutela eta heldu behar dutela, osasun-eskubide unibertsala berrezartzen dela ziurtatzeko. Ildo horretatik, REDERek goraipatu egiten ditu joan den maiatzeko hauteskundeez geroztik hainbat autonomia-erkidegok hasitako erreformak, eta adoretu nahi ditu erreforma horiek biribil ditzaten, konpondu barik dauden hutsuneak zuzendu arte; esaterako, familia-berrelkartzeagatik bizileku-baimena duten pertsonak babestea, uko egin baitaie aseguratuta egotea edo onuradun izatea; edota Europar Batasuneko hiritarrak edo Espainiak sinatu dituen aldebiko itunetako herrialdeetako hiritarrak, ez baitute aukerarik eskatzen zaien jatorriko herrialdeko dokumentazioa emateko.

Gertaerak, informazio faltagatik	Kasuak
Ez dute osasun-txartela izapidetu, informazio faltagatik (ez dakite eskubidea dutenik, edo ez dakite zelan egin izapidea)	348
Ez dago batere informaziorik osasun-arreta jasotzeko eskubideaz	187
Uko egin diote osasun-txartel berria (edo parekoa) jaulkitzeari, administrazioko langileek okerreko informazioa izan dutelako	183
Gertaerak, administrazio-oztopoak direla-eta	Kasuak
Ez diote jaulki osasun-txartel berria (edo pareko dokumentua), ez dituelako betetzen administrazio-baldintzak.	333
Ez diote arreta eman espezialitateko kontsultan, ez duelako osasun-txartela	65
Ez diote arreta eman lehen mailako kontsultan, ez duelako osasun-txartela	117
Jaso duen laguntza medikoagatik, faktura egin diote edo ordainduko duela bermatzeko hitzeman sinatu behar izan du.	Kasuak
Guztira	199
Larrialdietan	188
Bestelakoak	Kasuak
Ez diote arreta eman larrialdietan	44
Ezinezkoa izan zaio botikak jasotzea	91


PROGRAMA BEREZIAK DITUZTEN AAEE-ETAN IZANDAKO GERTAERAK




HANDITUTAKO SALBUESPENAK DITUZTEN AAEE-ETAN IZANDAKO GERTAERAK



ELD OSORIK APLIKATU DEN AAEE-ETAN IZANDAKO GERTAERAK**



16/2012 ELD APLIKATZEN EZ DUTEN AAEE-ETAN IZANDAKO GERTAERAK



■ Sendagaiak eskuratzeko ezintasuna. ■ Facturazioa edo egindako prestazio medikoa ordaintzeko konpromisoaren sinadura. ■ Arreta eskaintzeari uko egitea larrialdietan. ■ Administrazio-oztopoak direla-eta. ■ Informazio-falta dela-eta.

REDER Red de Denuncia y Resistencia al RDL 16/2012

Osasunerako sarbide unibertsala defendatzeko eta hura bete ezean salatzeko lan egiten duten kolektiboen, mugimenduen, erakundeen eta pertsonen sarea da REDER. Gaur egun, REDER 300 kidek osatzen dute (norbanakoak zein gizarte-erakundeak); esaterako, Familia eta Komunitateko Medikuntzako Espainiako Elkarte (semFYC), Munduko Medikuek, Osasun Eskubide Unibertsalaren Valentziako Erkidegoko Behatokia (ODUSALUD), Andalucia Acoge, Osasun Unibertsaleko Aragoiko Plataforma; Plataforma per una Atenció Sanitària Universal a Catalunya (PASUCAT), Osasun Publikoko eta Osasun Administrazioako Espainiako Elkarte (SESPAS), Osasun Publikoaren aldeko Elkartearen Federazioa (FDASP); Peruko Iheslarien eta Immigranteen Elkarte (ARI-PERU), eta Emakumeen Nazioz Gaindiko Sarea (Network Woman). Informazio gehiago: www.reder162012.org